

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3711

1378/2022 EBAZPENA, uztailaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Fak. Esp. Nefrologiako Medikua kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailea izendatu den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018 eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 10eko 855/2022 Ebazpenaren bidez, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Fak. Esp. Nefrologiako Medikua kategoriaren oinarri espezifikoa onartu ziren (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.— Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Ebazpen hau EHAAan argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 28a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

ERANSKINA

FAK. ESP. NEFROLOGIAKO MEDIKUA

Batzordeburua:

– Titularra: Alvarez Quitana, Eva Maria.

– Ordezkoa: Garcia Uriarte, Oscar.

Lehenengo epaimahaikidea:

– Titularra: Alcalde Bezhhold, Guillermo.

– Ordezkoa: Bralo Berastegui, Maria Begoña.

Bigarren epaimahaikidea:

– Titularra: Castañeda Perez, Olga.

– Ordezkoa: Moina Eguren, Iñigo.

Hirugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Aurrecoechea Fernandez, Maria Begoña.

– Ordezkoa: Minguela Pesquera, Jose Ignacio.

Laugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Celayeta Zamacona, Amagoia Otsanda.

– Ordezkoa: Delgado Arroyo, Sonia.

Idazkaria:

– Titularra: Lopez Altuna, Susana Esther.

– Ordezkoa: Peñin Jimenez, M.Rosario.